

**FRANTZISKO AITA SANTUA**

Ez da egongo, gaur egun munduan zehar, beste bat Frantzisko Aita Santua baizen onartua eta errespetatua danik. Estatu Batuetan, esaterako, “Time” aldizkariak, orain bi urte, munduko pertsonaia ospetsuen izendatu eban. Aurtengo udazkenean, bertara egindako bidaian, hango inkestetan agertu danetz, %65 - 90 iparramerikarrek begiko dabe Frantzisko Aita Santua.

Ia konturatu barik munduko liderra bihurtu jaku. Bere jokabide umil eta lauaz, bere berbaera astitsu eta leunaz, bere ausardiaz beteriko konpromiso eta mezu historikoaz hunkituta geratzen gara gehienok.

Besteak beste, Aita Santu aukeratu barri, “Civilta Cattolika” aldizkariaren zuzendariak egindako itaun honi, “Nor da Jorge Mario Bergoglio?” emon eutson erantzuna santu batena dirudi: “Jaungoikoak errukiz beterik begiratutako pekatari bat besterik ez naz”. Baita bere armarria “Miserando atque eligendo” oso ederra eta esanguratsua dogu Aita Santuaren barne-bizitza zerbait ulertzeko. Bere alde otoitz egiteko eskatzen agertu zanean, Vatikanoko balkoian Aita Santu eginda berehala, barneraino sartu jatan eskari hori eta harrezkero ez dot egun bat ere izten haren alde otoitz egin barik.

Handik hona, zenbat bider eskatu deuskun gauza bera. Baita Capitolion bertan ere, Iparrameriketako legebiltzarrekoei egindako hitzaldi sonatuaren amaieran bardin egingo dau: “Mesedez, otoitz egizue nire alde. Eta zuen artean, batzuk fe-

debakoak badira edo ezin badabe errezau, gauza onak gura izan niretzako. Eskerrik asko. Eta Jaungoikoak bedeinkatu dagiala Amerika”.

### Ahots bakoen ahotsa

Frantzisko Aita Santuaren pentsamendua ezagutzeko eta beraren asmoak zeintzuk diran jakiteko, nik neuk batez ere, besteak beste, haren hiru dokumentu eder honeek aipatuko neukez: “Evangelii Gaudium”, “Laudato Si” eta “Misericordiae Vultus”. Jesusen zoriontasunen argazkiak dirudie hirurak. Horixe agertzen jaku Frantzisko Aita Santuaren bihotza.

Ahots bakoen ahotsa bihurtu jaku Aita Santua. Txiroen eta baztertuen profeta, ekologiaren eta naturaren profeta, Jaungoikoaren errukiaren eta ontasunaren profeta. “Jaungoikoak maite gaituala” onartu eta bizitzea da guretzako gauzarik pozgarriena eta ederrena.

Deigarria eta aldi berean pozgarria ere egiten jat, Aita Santuak Capitolion egindako hitzaldian jarritako lau aitzindari honeek estatubatuarren arima eta espiritua suspertu eta indarbarritzeko. Hona hemen euron izenak: **Abraham Lincoln** askatasunaren eragile bezala, **Dorothy Day** justizia sozialaren eta giza eskubideen sustatzaile lez, **Thomas Merton** otoitzaren eta erlijioen arteko alkarrizketaren animatzaile bezala eta **Martin Luther King** arrazakeriaren kontrako bultzatzaile lez.

### Alkarrizketarako prest

Ez bakarrik bere entziklikan eta beste agiri nagusietan, baita bere eguaztenetako audientzietan eta eguneroko meza sermoietan garbi ikusten da Frantzisko Aita Santuak daukon argitasuna gauzak azaltzeko. Alkarrizketarako ere doai bereziak ditu. Alde batetik, bestearen ikuspegitik gauzak ikusteko gaitasuna eta bestetik umore finekoa, bat ere ernegau barik ber-

ba egiten dakian gizona dogu. Berehala igarten ditu galderen adierak...

Ohitura dauko pastoral bidaietan, Benedikto XVI.ri jarraituz, zuzenean egiten jakozan galderei bat-batean erantzuteko. Horixe gertatu da Estatu Batuetara egindako joanaldian ere. Hainbat galderen artean, nik neuk lau besterik ez ditut go-goan jaso. Estalpean bizi dan ezkondu bako ama gazte baten testigantza, hamasei urteko gazte baten esperientzia eta galdera, eta bi kazetarik egindako galderak.

**-Rosemary** dau izena estalpetxoan bizi dan ezkondu bako amak. Honen testigantza entzun ondoren, dinotso Aita Santuak: “Mila esker, Rosamary, zure testigantzagaitik. Lehenengo eta behin, gauza bat nahi deutsut esan... Badakit ez dala erraza ezkondu bako ama izatea, badakit sarritan askok txarto ikusten dabela hori, baina gauza bat esaten deutsut: emakume ausarta zarala, kapaz izan zaralako mundu honetara bi alabaxo ekarteko. Ahal zenduzan biak zeure sabelean hil, baina errespetatu egin zenduan zeure barruan zeroian bizia. Eta Jaungoikoak hori saritu egingo deustu eta saritu egiten deustu. Ez izan lotsarik, erabili burua tente eta esan: ‘Nik ez ditut nire alabak hil, mundura ekarri izan ditut’. Zoriondu egiten zaitut eta Jaungoikoak bedeinkatu zaizala”.

-Hamasei urteko gazte batek, (**Ricardo** honen izena) aita istripuz eritu ondoren, ikasketak alde batera laga eta lanean jardun beharra izan dau etxekoei laguntzeko eta itaun hau egiten deutso Aita Santuari: Hainbeste problema eta arazo larri dagoz munduan, ze konponbide aurkitzen dituzu? Aita Santuaren erantzuna: “Zure historia entzunda bistan dago garaia baino lehenago bizitzak aita egin zinduzala, aitaren gaixoaldian, familia aurrera ateratzeko lan egin beharra izan dozulako. Bizitza honetan hainbat injustizia dagoz, eta kristau bezala lehenengo jasan ebazana Jesus berbera izan zan. Kale gorrian jaio zan, ‘homeless’ bat bezala, bere amak ez eban euki

non umea erditu. Jesusi begiratu behar deusagu beti. Galdetu deustazu zelan konpondu arazo hain gordinak. Jesusi begira pauso bat gehiago emoten dogu aurrera. Jaungoikoak batzutan berbaz egiten deusku hitz, Biblian bezala. Beste askotan, gizarteko-egoerekaz. Eta sarritan, bere isiltasunaz. Nik neuk hainbat jente gosez ilten ikusten ditudanean, hainbat gaixo sendagai barik osatzeko, hainbat ume oinarrizko hezkuntza barik, hainbat jente etxerik gabe, gaur egun hainbat etorkin bizimodu hobearen bila eta bidean hiltzen direnak, nik Jesusi begiratzeko kurutzeko eta Jaungoikoaren isiltasuna besterik ez dot aurkitzen. Jesusen kurutzeko heriotzan, Jaungoikoa isilik dago. Munduko injustiziarik handienaren aurrean, Jaungoikoa muturik. Hau esan ondoren, ez ahaztu Jaungoikoak hitzez, bizitzako egoeren bidez eta isilik egonaz ere berba egiten deuskula. Eta zuk galdetu deustazuzan arazo larriak bakar-bakarrik Jaungoikoaren isiltasunaz ulertzen dira, eta Jaungoikoaren isiltasuna Jesusen kurutzeari begira soilik ulertzen da...

Zer egin? Mundu guztia konturatu egin behar da, esplotazioa ez dala bidea. Inok ere ez dauko eskubiderik beste inor esplotatzeko. Horretaz, danok kontzientziatu behar gara. Inok ezin dau esan: “Ez daukat horretan erantzukizunik”. Jaungoikoak danok sortu gaitu alkarri laguntzeko. Bakotxak berak ahal dauan neurrian. Baina badago Biblian ere agertzen dan berba zatar bat. Dinotso Jaungoikoak deabruari, guzurraren aitari, sugeari: “Alkarren etsai egingo zaituet zu eta emakumea”. Eta historian zehar, ikusiezina gehitzen joian eta gero-txoago, anaien arteko areriotasuna: Kainek Abel hiltzen dau. Lehenengo injustizia. Hortik aurrera gerrak, borrokak, hondamendiak. Geroago eta gorroto gogorrakoak. Futboleko berbak erabiliz, esango neuskizu, partidua adiskidetasun sozialaren eta areriotasun sozialaren artean jokatzen dala. Eta bakotxak bere bihotzean egin behar dau hautaketa eta guk lagundu hautaketa hori bihotzean hartzen. Drogen menpekotasunaz

edo indakeriaz ez da lortzen. Ez ahaztu: adiskidetasun soziala munduaren areriotasun sozialaren aurka. ‘Ni bon-bon eta zu hor konpon’, hori ez da Jaungoikoaren legea. Hauxe da burura etorri jatana zuri erantzuteko. Nire miwesmena aita gaixoaren ordez familiaren alde lan egin dozulako. Benetako aita izaten zaranean eta seme-alabak euki, jarraitu zeure aitaren antzera ondo hezitzen. Eta eskerrik asko”.

–“Il Corriere della Sera”ko **Gian Guido Vecchi** kazetariak egindako galdera: “Badira munduan zehar batzuk eta baita estatubatuarren artean ere, holako edo antzeko galdera arraroak egiten dabezanak: ‘Komunista ete da Aita Santua?’ eta oraintsu ‘Katolikoa ete da Aita Santua?’ Honetaz, zein da zure iritxia?”

“Komunista nazala edo ez nazala esateko arrazoirik ez dago. Seguru nago, nik neuk ez dot beste ezer erakutsi Eleizaren Doktrina soziala izan ezik. Latino Amerikatik egindako joan-etorrian, antzeko galdera bat egin eustan zure taldekide batek esanaz: Zuk herri-mugimenduei eskua luzatu deutzazu, baina Eleizak jarraituko ete dau?. Eta nire erantzuna hauxe izan zan: ‘Neuk naz Eleizari jarraitzen deutzodana’. Nire doktrina soziala Eleizarena da. Beharrezkoa bada, gertu nago Kredoaren errezatzeko be”.

–“France Presse” agentziako **Jean-Louis de la Vaissière** kazetariaren galdera: “Arratsalde on, Txit Aita Santua. Eskerrak bidaia honegaitik. Ego Amerikara egindako bidaiaren gogor salatu zenduan sistema kapitalista liberala baina Kuban ez dozu hain gogor salatu komunismoa, askotaz ere ahulagoak izan dira zure kritikak. Zergaitik desberdintasun hori?”

“Kuban egindako hitzaldietan, beti erabili izan dot Eleizaren Doktrina soziala. Bat ere makaltasun barik saiatu naz oker dagozan gauzak zuzentzen. Nik ez dot ezer esan kapitalismo liberalaren kontra ‘Evangelii gaudium’ agertzen dana baino gehiagorik. Guzti hori idatzita dago. Idatzi nebana esan dot. Eta nahikoa da! Nahikoa! Nahikoa da!. Guzti hori Eleizaren

doktrina besterik ez da. Gainera Kubako bidaia oso pastoralak izan da, katolikoekin batez ere, kristauekin, eta borondate honetako pertsonekin. Nire hitzaldiak homiliak baino ez dira izan. Baita gazteekin ere, nire hitzaldia itxaropenaren hitzaldia izan da, alkarrizketarako arnasa, batera jokatzeko deia, alkartzen gaituen gauzak bilatzeko deiadarra eta ez sakabanatzen gaituanak, zubiak eraikitzen... Kuban pastoral hizkera erabili izan dot. Entziklikan, oster, hizkera teknikoagoa eta zehatzagoa”.

Eskertzekoa da Jaungoikoari holako Aita Santua daukagulako. Egin daigun otoitz beraren alde. Baita eskertzekoa da Jaungoikoari nire bizitzan ezagutu izan dodazan Aita Santu guztiak ere: Pio XII.a, Joan XXIII.a santua, Paulo VI.a dohatsua, Joan Paulo I.a, Joan Paulo II.a santua eta Benedikto XVI.a.

*A. Olea*